



ORIOK OUDALA

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2012ko abenduaren 26a, asteazkena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:05 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:55

BERTARATUAK:

Alkatea

Beñat Solaberrieta Albizu

Zinegotziak

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Angel del Hoyo Bravo, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Jon Agirresarobe Lopetegi, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Ekiñe Saizar Larrañaga, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

BERTARATU EZ DIRENAK:

Elena Etxeberria Sedano zinegotziak (EAJ) adierazi du ezin zuela etorri, kanpoan dagoelako, eta beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarrak 2012ko urriaren 30ean egindako ezohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 8/2012 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 3.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 9/2012 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua gehitzeko modalitatean egina dago.
- 4.- Behin betiko onarpena ematea, egoki bada, Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. hirigintza-jarduketaren (Kale Nagusia) garapen urbanistikoari dagokion hitzarmen urbanistikoaren aldaketari.
- 5.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko udal kanpineko bungalowen hornidura eta instalazioaren kontratazioa.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Orioko 'Nueva Cerámica Arocena' enpresaren ondoan dagoen Etxeluze izeneko eraikina erostea.
- 7.- Onartzea, egoki bada, EAJ udal talde politikoak aurkeztutako mozioa, etxegabetzei buruzkoa.
- 8.- Onartzea, egoki bada, Ibon Berasaluze Manterolak 'ORIOKO HERRIRA' mugimenduaren izenean aurkeztutako mozioa, euskal preso politikoei buruzkoa.
- 9.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2012KO URRIAREN 30EAN EGINDAKO EZOHICO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, zirriborroari inork inolako oharrik egiten ez dionez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarrak 2012ko urriaren 30ean egindako ezohiko bilkurako akta.



2.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 8/2012 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 8/2012 espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 129.661 euroko zenbatekoa du.

Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJ talde politikoaren izenean, eta adierazten du ez dela aurreneko aldia kreditua aldatzeko espedienteen edukian aldaketak izaten direla Ogasun batzordean diktaminatu eta udalbatzarrera gaia eraman bitartean; adierazten du, hori ez gertatzeko, Ogasun batzordeak behar adina denborarekin prestatu eta egin behar direla, kreditua aldatzeko espedienteen edukiak aldaketarik izan ez dezan diktaminatzen den momentutik udalbatzarrera eraman bitartean.

Beraz, gertatu dena ikusita, Jon Redondo zinegotziak adierazten du bere talde politikoak ez duela parte hartuko gai-zerrendako gai honen bozketan eta gauza bera egingo duela, arrazoi berberetatik, gai-zerrendako 3. gaiari dagokionez.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du kreditua aldatzeko espedienteetan azken orduko aldaketak egin badira, hori izan dela aurrekontua ixteko garaian gaudelako eta ahalik eta ondoen doitu behar direlako diru-kontuak, gestio egoki eta zuzena egiteko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, adierazitakoak ikusita, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko abenduaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Saizar (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2012ko aurrekontuari dagokion 8/2012 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 129.661 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.



c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

EAJ talde politikoko bost zinegotziek ez dute bozketan parte hartu, goian azaldutako arrazoiagatik.

3.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 9/2012 KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI, KREDITUA GEHITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 9/2012 espedientea kreditua gehitzeko modalitatean egina dago eta 196.093 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, adierazitakoak ikusita, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko abenduaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsorora (Bildu), Saizar (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2012ko aurrekontuari dagokion 9/2012 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua gehitzeko modalitatean egina dago eta 196.093 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza



b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

EAJ talde politikoko bost zinegotziek ez dute bozketan parte hartu, gai-zerrendako bigarren gaiaren azalpenean emandako arrazoiagatik.

4.- BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO KASKO HISTORIKOA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAREN 3. HIRIGINTZA-JARDUKETAREN (KALE NAGUSIA) GARAPEN URBANISTIKOARI DAGOKION HITZARMEN URBANISTIKOAREN ALDAKETARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Orioko udalbatzarrak honako erabakiak hartu zituen, besteak beste, 2011ko uztailaren 10ean egindako ezohiko bilkuran:

1.- Indarrik gabe uztea Kale Nagusian sustapen pribatuko 25 udal etxebizitza tasatu adjudikatzeko zozketa publikoari dagokion prozedura, kontuan hartuta eskabideen kopurua txikiagoa izan dela eskainitako etxebizitzena baino

2.- Lehen onarpena ematea Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. hirigintza-jarduketaren (Kale Nagusia) garapen urbanistikoari dagokion hitzarmen urbanistikoaren aldaketari.

3.- Aldatzea Orioko Kale Nagusiko sustapen pribatuko 25 udal etxebizitza tasatuen behin-behineko kalifikazioa.



4.- Onartzea etxebizitza adjudikatzeko aukera ematea dagokion araudian ezarritako baldintzak betetzen dituen edozeini, Orioko Kale Nagusiko 6 udal etxebizitza tasaturen sustapena dela-eta.

Aipatutako hitzarmen urbanistikoaren aldaketa jendaurrean jarri zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2012ko irailaren 27a, 186. zenbakia) argitaratutako iragarkiaren eta testu arautzailearen bitartez; eta haren kontra ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJ talde politikoaren izenean, eta adierazten du bere taldeak kontrako botoa emango duela, ez daudelako ados etxebizitza horien sustapen pribatuko udal etxebizitza tasatu kalifikazioa aldatzearekin eta etxebizitza libre bihurtzearekin, nahiz eta ados dauden etxebizitza horien salmenta-prezioa jaistearekin.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du Udalak jokatu duen bezala jokatu badu, bi helburu garbi betetzeko izan dela: batetik, arazo urbanistiko bat konpontzea eta, bestetik, bi udal etxebizitzen salmentatik lortutako dirua ludoteka bat egokitzeko erabiltzea; adierazten du, hortaz, Udalaren jarduketa honekin onurak eta hobekuntza lortzen direla Orioko bizilagunentzat.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, adierazitakoak ikusita, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko abenduaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Saizar (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz; kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Cotado (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

1.- BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. hirigintza-jarduketaren (Kale Nagusia) garapen urbanistikoari dagokion hitzarmen urbanistikoaren aldaketari.

2.- AHALMENA EMATEA alkateari hitzarmen hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

5.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL KANPINEKO BUNGALOWEN HORNIDURA ETA INSTALAZIOAREN KONTRATAZIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Lehiaketara proposamenak aurkezteko irekitako epean, honako lehiatzaileak aurkeztu dira:



1. GCM, SL
2. ZURTEK, SL
3. DARZAL, SL
4. MALDADIA, SL
5. JIMENEZ XAMER, SL
6. GARNICA PLYWOOD FUENMAYOR, SLU
7. MAJARENA, SL
8. ROYAL NATURAL HOME, SL
9. HERGOHOMES, SA

Kontratazio mahaiak, espedientean dauden txosten teknikoak kontuan hartuta, honako hau proposatu du: kontratua **GARNICA PLYWOOD FUENMAYOR, SLU** entitate merkantilari adjudikatzea, bera delako puntuaziorik altuena lortu duen proposamena, baldintza administratibo partikularren orrian ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- BALIOZKOTZAT JOTZEA 2012ko abenduaren 13an egindako plikak irekitzeko ekitaldia.

2.- ADJUDIKATZEA Orioko udal kanpineko bungalowen hornidura eta instalazioaren kontratua **GARNICA PLYWOOD FUENMAYOR, SLU** entitate merkantilari; adjudikazioaren prezioa 854.253,95 eurokoa da, BEZa, gastu orokorrak eta mozkin industrialak barne.

Adjudikaziodunak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, eta behin betiko abala (35.299,75 eurokoa) eman beharko du hamabost laneguneko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

3.- JAKINARAZTEA erabaki hau interesatu guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joka dezaten, dagozkion lege errekurtsioak azalduz.



6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO 'NUEVA CERÁMICA AROCENA' ENPRESAREN ONDOAN DAGOEN ETXELUZE IZENENKO ERAIKINA EROSTEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Etxeluze eraikina ARIN Y EMBIL, SRC entitate merkantilaren jabetzapekoa da eta salerosketaren prezioa 135.975 eurokoa da.

Udaleko Obra eta Zerbitzuetako batzordeburu Amaia Dorronsorok (Bildu) hartzen du hitza eta adierazten du, Etxeluze eraikina erosita, Udalak hiru helburu bete nahi dituela:

- Udal ondarea berreskuratzea.
- Herriko elkarte edo talde batzuk planteatutako beharrak asetzea.
- Erakinen gestioa Udalaren eta gazte elkarte baten artean sinatuko den hitzarmen baten bidez gauzatzea.

Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJ talde politikoaren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak honako dokumentuak bilatzen dituela faltan espediente administratiboan:

- Udal teknikariaren txostena.
- Peritu baten tasazio eguneratua.
- Titulartasunaren eta kargen ziurtagiria.
- Kosta Zerbitzuaren txostena.

Jon Redondo zinegotziak, era berean, udal idazkariari galdetzen dio ea posible den, legez, eraikin horren erosketa onartzea, espedientean esandako dokumentuak falta badira; idazkariak erantzuten dio, esanez espedientean honako dokumentuak daudela:

- Higiezinaren tasazio-txostena, 2011ko otsailaren 22ko data duena.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Bide Azpiegituren Departamentuak emandako txostena, Etxeluze eraikina gazteentzako gunegisa egokitzeko baldintzei buruzkoa.
- Uraren Euskal Agentziak (URAK) Orioko Udalak egindako kontsultari erantzunez emandako txostena, Etxeluze eraikinak Oria ibaiarekin lotutako kirolak egiteko gunegisa eta Orioko gazteentzako aisialdiko gunegisa duen bideragarritasuna aztertzen duena.
- Udal idazkaritzak emandako txosten juridikoa.



Idazkariak adierazten du eraikinaren salerosketa ezin dela gauzatu, aldez aurretik Jabetzaren Erregistroari horren titulartasunaren eta kargen ziurtagiria eskatu gabe; adierazten du, beraz, Udalarari iruditzen bazaio erosketa onartzea egokia dela, honako baldintzarekin onartu beharko litzatekeela: aldez aurretik, eraikinaren titulartasunaren eta kargen ziurtagiria aurkeztu beharko da, behar bezala kreditatzeko higiezinaren titularra zein den eta ziurtatzeko eraikinak ez duela inolako kargarik; baldintza hori bete ezean, Udalaren erabakia bertan behera geratuko litzateke, inolako eraginik gabe.

Jon Redondo zinegotziak hartzen du berriro hitza eta adierazten du bere talde politikoak baiezeko botoa emango diola eraikinaren erosketa onartzeari, udal idazkariak adierazi dituen baldintzetan egiten bada, eta indarrean dauden arau aplikagarriak betetzen badira.

Miriam Uranga alkateordeak hartzen du hitza eta, Orain taldearen izenean, adierazten du guztiz bat datorrela Amaia Dorronsoro zinegotziak azaldu duenarekin. Adierazten du, baita ere, sentitzen duela gai hau aztertu zuen abenduaren 20ko Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzailean gertatutakoaz esandakoa.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, adierazitakoak ikusita eta Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2012ko abenduaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Orioko 'Nueva Cerámica Arocena' enpresaren ondoan dagoen Etxeluze izeneko eraikina erostea. Eraikina ARIN Y EMBIL, SRC entitate merkantilaren jabetzapekoa da eta salerosketaren prezioa 135.975 eurokoa izango da: 80.000 euro ordainduko dira 2012ko udal aurrekontuaren kargura eta gainerako 55.975 euroak, 2013ko udal aurrekontuaren kargura, konpromisoko kreditu gisa; nolana ere, saltzaileari 21.000 euroko zenbatekoa ordainduko zaio, salerosketaren azken prezioaren aurrerapen gisa.

2.- AHALMEN ZABALA EMATEA alkateari, salerosketaren dokumentu pribatuak edota eskritura publikoa sina ditzan Orioko Udalaren izenean, dagokion Jabetza Erregistroan guztiz inskribatuta geratzeko.

3.- Udalaren erabaki honek indarra izan dezan, honako **BALDINTZA** bete beharko da: aldez aurretik, eraikinaren titulartasunaren eta kargen ziurtagiria aurkeztu beharko da, behar bezala kreditatzeko higiezinaren titularra zein den eta ziurtatzeko eraikinak ez duela inolako kargarik; baldintza hori bete ezean, Udalaren erabakia bertan behera geratuko da, inolako eraginik gabe.



7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAJ UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ETXEGABETZEEI BURUZKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. EAJ udal talde politikoak aurkeztu duen etxegabetzei buruzko mozioak honela dio, hitzez hitz:

DESJABETZEEI BURUZKO EAJ-REN MOZIOA

1.- *Orioko udalak, hipoteka zordunen babesa indartzeko asmoz hartutako premiazko neurriak, urriak direla usten duelako, Estatuko Gobernua, azaroaren 15eko 27/2012ko errege dekretua aldatzera, estutzen du.*

2.- *Orioko udalak, dagokion legediaren aldaketa onartzen den bitartean Estatuko Gobernua, ohiko etxebizitzaren galera ekidingo duen hipotekaren aldi baterako luzamendua ezartzera, estutzen du.*

3.- *Orioko udalak, Estatuko Gobernua, Konkurtso Legea, Hipoteka legea, Akzio Zibila Epaitzeko Legea, eta nolabaiteko harremana duen arautegi guztia aldatzera estutzen du. Guzti hau, besteak beste, pertsonak, neurritz kanpoko klausulak aplikatu izanak jasanarazi dizkien defentsa- gabezia egoeretatik babesteko eta "zordun zintzoak edo ez gezurtiak", berriro hazteko aukera izan dezaten.*

- *Arautegi aldakuntza honek, pertsona fisikoen, ondare-ardura unibertsalaren printzipioa murriztera, zuzendua izan behar du, beraz, fede oneko pertsona zordunaren une horretan bahitura egingarria duen ondarea gauzatu ondoren, gainontzeko pasiboa salbuetsita gera dadin.*

- *Arautegi aldakuntza honek, Hipotekaren eskrituran adostutako balioztatzearen balioa eta Hipoteka gauzatzeko prozedura burutzean duen balioa antzekoa izan dadin lortzera, zuzendua izan behar du.*

4.- *Orioko udalak, Eusko Jaurlaritza, bai alokairu bai jabetza erregimenean, ohiko etxebizitzaren desjabetzea jasateko arriskuan dauden pertsonen prebentzio-bitartekaritza eta aholkularitza bezalako gaiei aurre egiten laguntzeko duen hipoteka bitartekaritza zerbitzua hobetzera, estutzen du.*

5.- *Orioko udalak, bere eskumena den neurrian, eta indarrean dauden gizarte babeserako egitasmoen baitan (etxebizitza, enplegua...) etxebizitza bakarretik desjabetuak izan diren pertsonak, giza arreta berezia behar duen taldeetat hartzeko konpromisoa hartzen du.*



6.- Orioko udalak, 15 egunen buruan, desjabetzea gertatzen den unean aurrez aipatutako kolektiboari aplikatzeko jarduera-protokolo bat egiteko konpromisoa hartzen du.

7.- Orioko udalak, Jarduera Onen Kodea betetzen ez eta desjabetzeak bertan bera usten ez dituzten finantza erakundeekiko bere harremana, berraztertze konpromisoa hartzen du.

Alkateak hartzen du hitza, BILDUren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa emango duela, zeren eta, mozioaren edukiarekin kontzeptualki ados baldin badaude ere, bere talde politikoa ez baita horrekin konformatzen eta erabaki zehatzagoak eskatzen ditu; bestalde, adierazten du mozioaren 6. atalean aipatzen den 15 eguneko epea motza iruditzen zaiela.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Cotado (EAJ), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Saizar (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ABSTENTZIO**]:

ONARTZEA EAJ udal talde politikoak aurkeztu duen etxegabetzei buruzko mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, IBON BERASALUZE MANTEROLAK 'ORIOKO HERRIRA' MUGIMENDUAREN IZENEAN AURKEZTUTAKO MOZIOA, EUSKAL PRESO POLITIKOEI BURUZKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Ibon Berasaluze Manterolak, ORIOKO HERRIRA mugimenduaren izenean, aurkeztu duen euskal preso politikoei buruzko mozioak honela dio, hitzez hitz

665 dira euskal preso politikoen kolektiboa osatzen duten pertsonak. Horietatik soilik 8 dira Euskal Herriko kartzelatan preso daudenak. Gainerakoak Espainiako eta Frantziako espetxeetan sakabanatuta aurkitzen dira, batz bestea, beraien etxetik eta ingurunetik 1200 kilometro baino gehiagora aurkitzen dira.

Espainiako kartzelatan 498 euskal preso daude, 47 espetxeetan dispersatuta. Frantzian berriz, 29 espetxeetan dispersatuta, 143 preso daude. Preso bana aurkitzen dira Portugal, Belfast, Ingalaterra eta Mexikoko espetxeetan. Pertsona bat konfinaturik dago. Azkenik, 11 dira gaixotasun larriak izanik espetxeratze arinduan daudenak, beraien etxeetan.



Guztira 77 presoek aplikatu zaie, kondena luzatuz, bizi arteko zigorra era faktikoan ezartzen duen doktrina (197/2006 sententzia). Eta gaur egun ere kondena hau aplikatzen jarraitzen da.

Orain artekoa ikusirik Orioko Herrira mugimenduak honako hauxe eskatzen dio Orioko udalari:

1.- Preso politikoei aplikatzen zaizkien salbuespeneko neurriak indargabetzea. Hala nola, dispertsioa, bizi arteko kartzela zigorra ezartzeko neurriak, gaixorik direnak preso mantentzea, isolamendua eta bakartzea.

2.- Urtarrilaren 12an Bilbon, Giza eskubideak, irtenbidea, bakea, euskal presoak euskal herrira, lemapean burutuko den manifestazioarekin bat egitea.

3.- Urtarrilaren 12an Bilbon burutuko den manifestazioan parte hartzea.

4.- Orioko udalak, manifestaldi horretara, herritarrak gonbidatzea. Gabon hauetatik manifestazioa burutu bitartean, manifestaziorako deia egiten duen pankarta udaletxeko balkoian jarriz.

Miriam Uranga lehen alkateordeak hartzen du hitza, ORAIN talde politikoaren izenean, eta proposatzen die bertaratuei mozioa puntuz puntu bozkatzea; alkateak onartu egiten du proposamena.

Mozioaren lehen puntua bozkatzen da eta **AHO BATEZ** onartzen da [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

Mozioaren bigarren eta hirugarren puntuak **BOZKETA BIDEZ** onartzen dira [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Saizar (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz; abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Cotado (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**].

Mozioaren laugarren puntua **BOZKETA BIDEZ** onartzen da [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu) eta Saizar (Bildu), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Cotado (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**; kontrako botoak: Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **BI KONTRAKO BOTO**]. Orain taldearen kontrako botoaren arrazoia honako hau da: ez daudela ados udaletxeko balkoian pankarta bat jartzearekin.

9.- ESKARIAK ETA GALDERAK.



Ez zen eskari edo galderarik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak urte berri ona opa die bertaratutako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,